

SELEKTIBITATEA (14-16): DISOLBAGARRITASUNA.-HAUSPEATZE  
ERREAKZIOAK (1-4)

1.-2014

**G3.** Zilar kloruroaren disolbagarritasun-biderkadura  $K_{ps} = 1,7 \cdot 10^{-10}$  dela jakinik:

- Kalkula ezazu zer disolbagarritasun duen zilar kloruroak uretan, eta adieraz ezazu g/L-tan.
- Sortuko al da zilar kloruroaren hauspeakinik, 2 L HCl(aq) 0,025 M eta 4 L AgNO<sub>3</sub>(aq) 0,005 M nahasten badira?

2.-2015

**G3.** 20 °C-an, 0,99 g berun (II) kloruro (PbCl<sub>2</sub>) disolbatzen dira, gehienez, 100 mL uretan.

- Kalkula ezazu berun(II) eta kloruro ioien kontzentrazioa disoluzio ase batean.
- Kalkula ezazu berun(II) kloruroaren disolbagarritasun-biderkadura ( $K_{ps}$ ) 20 °C-an.

3.-2015

**G3.** 25 °C-an, CaF<sub>2</sub> kaltzio fluoruroaren disolbagarritasuna uretan 86 mg·L<sup>-1</sup> da.

- Kalkulatu kaltzio eta fluoruro ioien kontzentrazioa, mol·L<sup>-1</sup>-tan, disoluzio ase batean.
- Kalkulatu kaltzio fluoruroaren disolbagarritasun-biderkadura ( $K_{ps}$ ).

4.-2016

**G3.** Zilar sulfatoaren (Ag<sub>2</sub>SO<sub>4</sub>) disoluzio asean, zilar ioiaren kontzentrazioa 0,016 da. Kalkulatu:

- Sulfato ioiaren kontzentrazioa eta zilar sulfatoaren disolbagarritasun-biderkadura.
- Zenbat litro ur beharko dira 0,5 gramo zilar sulfato disolbatzeko?